izeneko 39 urteko gizona. Balak Atera eta Kentzeko Baimenaren premiak ekarri du ilarara; bala bat darama barruan, pelbisetik gertu, lehen aldiz zauria artatu zion medikuak erauzi ez zuena. Harrigarria izan daiteke, baina, baimen egokirik ezean, balak bere barruan jarraituko du, eta barne-odoluste baten ondorioz hilko da. Haren medikuak, Tarek Fahmik, pazientearen beharrak txosten batean eguneratu besterik ezin dezake egin. Haren ustez, balak ezin du Yehiaren pelbisean jarraitu, eta Yehiak berak ezin du ilaran gehiago itxaron. Azken hori eta unibertsitate garaiko bere bi lagun baimena eskuratzeko prozesua azkartzen saiatuko dira; arrakastarik gabe, ordea.

### Itxarotea, bizimodu

Egiptoko herritarren bizitzak kontrolatzen dituen burokrazia-sare ikusezina da Atea; jendeak ez du erabat ulertzen zehazki zer egin behar duen oinarrizko beharrak ase ahal izateko. Nobelan zehar, ez du ematen ilaran zain dagoen inork Atean sartzeko aukera duenik. Jendeak egunak, asteak, hilabeteak... igarotzen ditu zain, gau eta egun. Alegia, itxarotea beren bizimodu bakarra bihurtu da.

Tarek doktoreak maiztasunez ikuskatzen du Yehiaren txostena, egunetik egunera aldatu egiten delako, pazientea hil gabe bala ateratzeko diseinatu duen ebakuntza barne. Bulegoan giltzapean gordeta daukan arren, pazientearen okerragotze prozesuaren arabera, norbait xehetasun berriak gaineratzen ari zaio txostenari. Gauza jakina da herritar guztiak une oro behatuak direla, eta txostenaren inguruko gertaerak doktorea bera ez dela salbuespena adierazten du. Denborarekin argi geratuko da agintariek ez dutela bala erauzterik nahi, *okerreko jendearen* esku eroriko balitz, frogatu ahalko luketelako bala gobernuko segurtasun indarretako norbaiten armatik atera zela.

Halako batean, Ateak dekretuz adieraziko du *gertaera lotsagarria* ez zela inoiz jazo; ustezko gertaeren unean filmatzen ari ziren arrakasta handiko pelikula baten gidoiaren parte izan zen dena. Gauzak horrela, Tareken esku dago Yehiarekin zer egin erabakitzea: ordura arte egin bezala, protokoloari jarraitu eta gaixoa hiltzen uztea, ala legeari bizkarra eman eta hari laguntzea, lanbidea eta bere askatasuna arriskuan jarrita.

# Zuriaren ostekoa

**Peru Iparragirre**

Otutzen zaidan lehena, zera da: geruza anitzeko liburua dela Edorta Jimenezen *Ostadarrak lurra ukitzen duen lekua* poliedrikoa. Sampedro eta Jauregi lankideek iruzkindu dituzten aurreko liburuen gisara, nobela beltza da hau ere. Eta literatura sailkatzeak irakurketa bera mugatzea ekar badezake ere, batzuetan idazketa bera ere muga badezake ere, iruditu zait mugak aise gainditzen dituela liburu honek, ausartzen dela mugak gainditzen, edo, behintzat, ez diola bere buruari mugarik jartzen, nobela-belztasun izate horren aitzakian.

Zeri kontrajartzen zaion nobelaren belztasuna kasu honetan? Erakundeek mezu ofizialetan zabaltzen duten zuritasunari, beharbada, eleberriari buruz prentsari emandako azalpenetan Jimenezek berak hala adierazi du, bederen. Bizkaia zuri horren itxurapean ezkutatzen dena da azalera dakarrena eleberriak. Azaleratze hori helburu izanik, salaketa-nobela gisa har liteke, eta bada, hein batean. Argi dago, dena dela, *Ostadarrak lurra ukitzen duen lekua* ez dela panfleto bat, eleberri sendoa baizik. Sendoa eta geruza askotarikoz jantzia. Azaleko zuritasunaren belztasuna agerian uzten dute apurka geruzok, baina, batez ere, belztasunaren baitako zokoetan arakatzea ahalbidetzen dute. Indarkeria estrukturala eta indarkeria instituzionala batzen direnekoaz ari da: ustelkeriaz, torturaz... Baina tartekoaz ere ari da: estruktural eta institucional den horrek zeharkatzen eta hori haragiztatzen duten pertsonei eta haien arteko harremanei buruz. Nobelako pertsonaiak zuritik beltzerako eskalan kokatzea zaila suerta daiteke, nahiz eta batzuk, bat, bederen, besteak baino zalantzagarriago izan, zalantzarik ez: misoginoago, lesbofoboago, nazkagarriago.

**'Ostadarrak lurra ukitzen duen lekua'**
**Egilea:** Edorta Jimenez.
**Argitaletxea:** Txalaparta.

Tartekatzen diren bi narrazio nagusik osatzen dute nobela: lehen pertsonan idatzitako testigantza estiloko kontakizunak eta kontakizun horrekiko paralelo garatzen den hirugarren pertsonan kontatutako istorioak. Bilbaren jarioa ezin eramangarriagoa da, bi kontakizunek kontrapisua egiten baitiote elkarri, lehenaldian lehen pertsonakoak, oraingo hirugarren pertsonakoak. Istorioari linealki jarraitzen diote biek eta linealtasun bikoitz horretan egiten du aurrera eleberriak. Linealtasun tranpatia da, haatik, aurrera egin ahala irakurlea ohartuko denez. Funtzionatzen duten tranpak dira, ordea, eleberrikoak. Eta horretan datza, agian, literatura ona. Ni neu, behintzat, bete-betean harrapatu nau nobelak. Gozagarria egin zait irakurketa, umoretsua eta latza baita, konbinazio aproposean.

Atentzioa eman didaten beste kontu pare bat ere ekarri nahi ditut. Deigarria da nola pertsonaia nagusietako batzuk «zera ohiak» diren, beste bat «zerakoen kolaboratzaile» izateaz akusatu, torturatu eta kondenatua, eta abar. Ez dira gutxi izen-jokoak, hitz-jokoak beste, kontakizunari dimentsio gehigarri bat ematen diotenak. Izendatzeko erek eta ez-izendatzekoek berebiziko garrantzia dute liburu honetan, aipatzen ez edota gaizki aipatzen direnez ari baita Jimenez. Hizkuntzaren erabilera da bigarren kontua, labur: euskararen barne –eta kanpo– tentsioek presentzia handia dute kontakizunean, eta baita kontakizuna emateko moduan ere: hizkerak, euskalkiak, diglosia ere ez dira falta zuritasunaren ostean ezkutuan dagoenari buruzko eleberri beltz eta poliedriko honetan.

# Banpirozaleei

**HAUR ETA GAZTE LITERATURA**

**Imanol Mercero**

Idazlearen eskaintza «banpirozaleei» eginda dagoela jakinik, erraz koka genezake liburu honen zer-nolakoa. Genero narrazioa dugu, hamazazpi ataletan banatua, eta ilustraziorik gabea.

Esan genezake irakurketa errazeko obra dela; halako eran, non eska genezakeen ezaugarri (ia) bakarra eraginkortasuna den; alegia, istorioa espero bezala gara dadila, pertsonaia zintzoen eta gaizto antagonisten arteko borroka betean, informazioaren kudeaketa inteligente batekin, irakurleak senti dezan jakinmina amaiera arte.

Eta lortu duela ematen du. Baina, ez guztiz. Irudipena daukat esperientzia gabeko irakurleek gozatu handiagoa hartuko dutela, generoak eskaintzen dituen baliabideetan ez delako ez berritzailea, ezta apurtzailea ere, eta *bat gehiago* izatearen sentsazioarekin amaituko du halakoen irakurketan aritua denak.

Dena den, ekarpentxo interesgarria egiten duela iruditu zait, hain zuzen, zintzo-gaizto dikotomian eta, ondorioz, banpiroen izaeran. Moral kontuak direnez, ez da espero denen asegarri izatea, baina bederen idazleak berearen bidez gaur egungo pentsaeren artean txertatzeko arriskua hartzen du, eta eskertzekoa da.




**'Banpiroen hiria'**
**Egilea:** Aitor Arana.
**Argitaletxea:** Ibaizabal.

# Zuhaitz-etxekoak

**HAUR ETA GAZTE LITERATURA**

**Imanol Mercero**

Nork ez du igeltsua eduki nahi izan txikitan? Txikitako irrika gogoangarri horietako baten kronika umoretsua eskaintzen zaigu ipuin irudidun honetan: igeltsuarekin bildutako beso (hanka) heroikoa. Makina bat haurren buruan izan den ametsa, bai horixe!

Sortzaileek erretratu ariketa bat proposatzen digute. Ez dago istoriorik. Soilik haur bat etxeko egongelan, bere desioa plazaratzen. Kontakizuna hiru ahotsetara eraikita dago: batetik, Emileren burutik zer pasatzen den ongi baino hobeto dakien narratzaile orojakilea; bestetik, Emile bera; eta hirugarrenik, Emileri hitz egiten dion ahotsa, nor den ziur ez dakiguna, baina irakurlea izan litekeena, edo, bestela, irakurlearen irudimenak nahi duen hori (gurasoa, haurridea, adiskidea,...), eta puntualki baino agertzen ez dena.

Erretratu ariketa izanik ere, kontaketa ez dago geldi, protagonista mugimenduan dabil, besaulkian gora eta behera, pentsatzen igeltsua nahi duela, baina minik ez, heroia izan nahi du adiskideek miretsi dezaten... zer arraio!

Aieka hauetatik eraikitako literatura atsegin baduzu, jakin ezazu *Zuhaitz -etxeko istorioak* deituriko bilduma baten parte dela, idatziz zein pantailan (ETB3) jarraitu daitekeena.

**'Emilek igeltsua nahi du'**
**Idazlea:** Vincent Cuvellier. **Ilustratzailea:** Ronan Badel. **Itzultzailea:** Antton Garikano. **Argitaletxea:** Ibaizabal.